

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1373

598/2024 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren Goi Mailako Tituluduna - Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), barne-sustapen bidez, estatu-tupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (dagokion eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018an eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. (2021eko abenduaren 14ko EHAA 248. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 902/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Goi Mailako Tituluduna - Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri espezifikoak. (2022ko apirilaren 6ko EHAA 69. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 8ko 594/2024 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta barne-sustapeneko destinoen esleipena argitaratu ziren Goi Mailako Tituluduna - Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Goi Mailako Tituluduna - Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen lege-riak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, barne-sustapen bidez, Goi Mailako Tituluduna - Ekonomialaria kategorian (Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Euro-

par Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzmatea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espedita bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzmatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzmatea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundeetan.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko martxoaren 18a, astelehena

ERANSKINA  
OSAKIDETZAREN LAN-ESKINTZA PUBLIKOA 2018-2019  
DESTINOEN ESLEIPENA  
KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EKONOMIALARIA  
TXANDA: BARNE SUSTAPENA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitura	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9043**	Aldalur Lus, Virginia	Debarreneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Ekonomiako Zuzendaritza - Ekonomiako Zuzendaritza - Kontratazio Administrazioa / Mendaroko Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	3 2010-06-01
***3795**	Maiz Mendez, Ainhoa	Arab. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea - Egitura orokorrak / Ekonomiako Zuzendaritza - Ekonomiako Zuzendaritza - Ekonomiako Zuzendaritza / Arabako Ospitale Psikiatrikoa / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	3
***4707**	Martinez Robres, Marcos	Zuzendaritza Nagusia / Erakunde Korporatiboa - Erakunde Korporatiboa / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza - Finantza eta Aurrekontu Zuzendariordetza - Erosketak / Zuzendaritza Nagusia - Araba / Lanaldi Zaittua - Lanaldi zaittu ohikoa - Ez espezifikoko gehiago	3 2013-12-03
***2436**	Carrillo Navarro, Rut	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Ekonomiako Zuzendaritza - Ekonomiako Zuzendaritza - Ekonomiako Zuzendaritza / Donostiako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	3 2013-12-03